

Arduraldi partzialeko PIC eta LIU kontratuak bateratzeaz

STEILASen eta LABen ekimenez, arduraldi partzialeko PIC eta LIU kontratuak bateratzeko atea zabaltzea onartu du EHUK gaur, LIU hori 6h-koa izanda ere, biok elkarrekin asteko dedikazio maximoa gainditzen ez den bitartean, [lan-hitzarmenaren](#) 24.4 puntuaren interpretazioa ildo horretatik adostuta, bertan ez baitira bereizten arduraldi partzialeko eta osoko PICak.

EHUko ikertzaileen karrera akademikoa garatzeko traba bat ezabatu da horrela, baita haien lan-baldintzak hobetu ere, orain arte bateratze hori 4h-ra arteko ordezkapenekin baino ez baitzen posible.